

Azpeitiko genero berdintasunerako II. plana (2026-2031)



[2025eko abendua]

Proiektu honen aholkularitza tekniko
Emun Koop.E -k egin du

emun
Euskara eta
berrikuntza soziala

Aurkibidea

Hitzaurrea.....	4
Lege markoa.....	5
Metodologia.....	6
Azpeitiko Udalak 2010 -2025 epealdian garatutako berdintasun politiken balorazioa eta egoeraren diagnostikoan identifikatutako nroabide estrategikoak.....	9
Printzipioak eta bermeak.....	11
Esku hartze eremu, helburu eta ekintzen laburpena.....	14
Neurriak, epeak eta adierazleak.....	16
Bitartekoak eta baliabideak.....	28
Jarraipena eta ebaluazioa.....	29

Hitzaurrea

Dokumentu honetan Azpeitiko Udalaren II. Berdintasun Plana jasotzen da, herriaren garapen politiko eta sozialerako datozen sei urteetarako tresna estrategikoa. Azken hamarkadetan berdintasunaren aldeko irizpideak agenda publikoetan txertatzea aurrerapauso esanguratsua izan bada ere, oraindik ere agerian geratzen da gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak eragiten dituzten mekanismoek indarrean jarraitzen dutela. Lan merkatuan, erabakiguneetan, zaintza lanen banaketan, emakumeen aurkako indarkerian eta pobrezian ematen diren arrakalek erakusten dute berdintasuna lortzea gaur egungo erronka politiko nagusietako bat dela.

Horregatik, berdintasuna ez da helburu sozial soil bat, aldaketa politiko, kultural eta estruktural sakonak eskatzen dituen prozesu kolektiboa baizik. Berdintasun erreala lortzeko beharrezkoa da eraldaketa sustatzea bai esparru publikoan, bai pribatuan: jarrerak eta portaerak aldatzea, zaintza eredua birpentsatzea, botere-harremanak berrantolatzea eta emakumeen partaidetza oztopatzen duten egiturak gainditzea.

Testuinguru horretan, Azpeitiko Udalak II. Berdintasun Plan honen bidez norabide politiko argia ezartzen du, datozen urteetan berdintasun politiken garapena herriaren eraldaketa sozialaren erdigunean kokatzeko. Plan honen eraketa prozesuan egin den diagnostikoan identifikatutako erronka politiko nagusiek markatuko dute datozen sei urteetarako udalaren jarduna, eta horien artean nabarmentzen dira:

- Indarkeria matxistaren aurkako erantzun integrala eta koordinatua sendotzea, herritarren segurtasunaren eta eskubideen bermea udal politikaren oinarri gisa ulertuta.
- Ahalduz feministaren aldeko sustapen instituzionala, emakume eta genero disidenteen eskubideak eta protagonismo sozial eta politikoa indartuz, eta Emakumeen Txokoa tresna publiko gisa sendotuz.
- Zaintzen eremuan politika publiko sendoak garatzea, zaintza sistema bidezkoago, komunitarioago eta publikoago baterantz aurrera egiteko, erantzukidetasuna eta irisgarritasuna bermatuta.
- Gizarte-antolaketa bidezko eta berdinzale baterantz bidean eragitea, diskriminazio mota guztiei aurre eginez, eta herriaren kohesioa eta aniztasunarekiko errespetua indartuz.
- Gizonen inplikazioa eta eraldaketa sustatzea, berdintasun politikak eraginkorrak eta iraunkorrak izan daitezen ezinbesteko elementu politiko gisa.

Erronka horiek guztiek politika publikoak modu egituratuan berritzea eskatzen dute: aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea, udalak eskaintzen dituen zerbitzu eta prozeduretan berdintasuna sistematikoki integratzea, eta erakundeen arteko lankidetzak indartzea. Udalak konpromisoa hartzen du beharrezko baliabide ekonomiko eta teknikoak jartzeko, baita jarraipen eta ebaluazio mekanismo sendoak bermatzeko ere.

Berdintasunean oinarritutako herri bat ez da soilik politika sozialen helburu; udal erakundearen legimititatea, herritarren eskubideak eta bizikidetzak demokratikoki bermatzeko betekizun politikoa da. Horregatik, esku artean duzun II. Berdintasun Plan hau izango da udal politikaren norabide politikoa markatzen duen tresna nagusia; udalaren norabide politikoa zehazteko eta herriaren etorkizun berdinzaleagoa eraikitzeke tresna nagusia, alegia.

Lege markoa

Nazioartetik toki administrazioetara arau eremu zabalak babesten du genero berdintasunerako eskubidea, zein hori erdiesteko politika publikoen beharra. Bide horretan, udalek berdintasun politiken garapenerako eginkizuna ere arautua ikus dezakegu xedapen horietako hainbatetan. Hori horrela, testu honen zein ondoren sortuko den planaren arau markoa osatuko dute:

Nazioartean

- Nazio Batuen Gutuna (1945).
- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948).
- Emakumeari buruzko Mundu Konferentziak. Munduko IV. Konferentzia: Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma. +5, +10, +15, +20, +25, +30 egindako jarraipenak

Espainiar Estatuan

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako.
- 5/1015 Legegintzako Errege Dekretua, enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren
- Legaren testu betegina onartzen duena
- 10/2022 Lege Organikoa, sexu askatasunaren berme integralari buruzkoa
- 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun benetako eta eraginkorrerakoa eta LGBTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa

EAEen

- EAEko 1/2023 Legegintzako dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu betegina onartzen duena.
- 11/2022 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena
- 4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

Gipuzkoako lurralde historikoan

- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, Gipuzkako Batzar Nagusiek onartua.

Horrez gain, eremu programatikoan, bereziki aipatu behar dugu **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia** non EAEko botere publikoen jarduna gidatuko duten esku-hartzeko ildoak eta zuzentarauak jasotzen diren. Esku hartze ildo horiek izango dira plan honen erreferentziazko esparru.

Metodologia

Azpeitiko Udalean, berdintasun diagnostikoa eta plana egiteko hausnarketa bultzatu eta gogoeta eta erabakiak partekatu dira arlo eta eremu desberdinetako langile, ordezkari instituzional eta eragileen artean, ondorengo arloetan arreta berezia jarrita:



Parte hartzean



Sentsibilizazio eta hausnarketan




Fazilitazioan

PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Berdintasun planen zikloa

Berdintasun planak prozesu zikliko bat gisa ulertu behar ditugu, lau urratsez osatzen den eta etengabe zikloak errepikatzen dituen prozesu gisa, alegia:



Txostena osatzeko garatutako prozesuaren deskribapena

Txosten honekin, goiko irudian azaldutako prozesuaren bigarren urratsa eman dugu: planaren diseinua. Azpeitian lehenengo urratsa 2025eko martxotik irailera bitarteko epean egin da. Ondorengo irudian jasotakoak izan dira bigarren urrats honetan emandako pausuak:

2. Fasea: Emaizta eta itxiera:

- a. Emaizta txostena: kontrasteetako ekarpenak barnebilduta azken txostena osatu zen eta Talde Eragileko kideekin partekatu.
- b. Prozesuaren balorazioa: Talde Eragilearen azkeneko bileran prozesu baten itxiera izanik, momentua baliatu zen egindako lanaren, metodologiaren, giroaren eta emaitzaren balorazioa egiteko.
- c. Osoko bilkuran plana onartzea: Emaizta txostena udal ordezkariak osoko bilkuran onartuko dute 2026an planaren inplementazioarekin hasi ahal izateko.

Azpeitiko Udalak 2010 -2025 epealdian garatutako berdintasun politiken balorazioa eta egoeraren diagnostikoan identifikatutako norabide estrategikoak

Azpeitiko planaren abiapuntua 2025eko urte hasieran burutu zen 2010-2025 epealdiko berdintasun politiken balorazioa eta egoeraren diagnostikoa izan dira, bertan identifikatutako norabide estrategikoek eta egitekoek gidatu dutelarik plangintzaren norabidea.

Datozen lerroetan diagnostiko prozesuan zehar identifikatu ziren norabide estrategikoak jasotzen dira. Hala ere, errealitatea etengabeko mugimenduan dago eta, ondorioz, ondoren jasotzen dena ez da zerrenda mugatu bat, bidean sortu edo identifikatu diren hutsune, eginbehar eta gabeziek ere tokia izan dutelarik jarraian topatuko den planean. Bestalde, planak ez dio identifikatutako erronka guztiei erantzuten, diagnostikoa irekian egin bazen ere, planaren diseinuan lehentasunak eta abiapuntuko helburu eta ekintzak definitzeari arreta jarri zaiolarik.

GOBERNU ONA

- Egiturazko baldintzetan eragiten jarraitu eta horiek sendotu.
- Lan jazarpen protokoloa, sexu eta genero jazarpena barne protokoloa osatzea eta martxan jartzea.
- Genero-ikuspedia lan prozeduretan txertatzeko bidean sakondu eta jauzia eman.
- Formazio plana gauzatu, ebaluatu eta hobetu
- Udal sailen arteko elkarlanean sakondu.

AHALDUNTZE FEMINISTA

- Emakumeen Txokoaren inguruan egituratuko den Azpeitiko sare feminista indartu
- Emakumeen parte hartzea areagotu: herri mailan eta eremu guztietan emakumeen presentzia eta parte hartzea handitzeko beharra agertu da.
- Errealitate soziodemografikoa ikusita, zahartze aktibo eta feministak sustatzea ere erronka izango da.
- LGTBIQ+ kolektiboaren presentzia nabarmenagoa izatea.
- LGTBIQ+ kolektiboa saretuta eta espazio propio eta konpartituekin (mistoak eta ez mistoak).
- Genero rol eta adierazpenen arteko lerroak lausotu: genero rol eta estereotipoek sortzen dituzten genero adierazpen hertsietatik aldenduz joatea herri mailako erronka da.
-

Erronka estrategiko horietan Emakumeen Txokoa ezinbesteko giltzarri izango da, eta zentzu horretan, Txokoari loturiko hainbat erronka ere identifikatu dira:

- Emakumeen Txokoaren izaera komunitarioan sakondu.
- Kudeaketari dagokionez, elkarlanean eta harremanetan sakondu.
- Emakumeen Txokoak emakumeen eta genero disidenteen ahalduntzea sustatzean izan beharreko rolaren inguruan hausnartu eta horri loturiko erabakiak gauzatu.

GIZARTE ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA

- Feminismoaren inguruko diskurtsoa errora: herritarrek ikuspegi feminista kritikoa eskuratzea sustatu eta hori lurreratu eta gorpuzteko gaitasunean sakondu.
- LGTBIQ+ politketan sakondu.
- Eragileen arteko sareak eta harremanak sakondu, herrian egiten diren askotariko lanketetan genero-ikuspegia kontuan hartzeko.
- Herri zaintzailera bidean: herri mailan zaintza publiko eta komunitariora bidean sentsibilizazioa eta ekintza edota proiektu konkretuen beharra aipatu da. Horrekin batera, zaintza sistema justuago bat garatzen joatea izango da erronka.
- Zaintza lanetan dihardutenenei begirako lanketa espezifikokoak egitearen garrantzia azpimarratu da.
- Gizonen desboteretzea sustatzen jarraitzea erronka izaten jarraitzen du.
- Egungo errealitate soziodemografikoak kultur aberastasuna kudeatzeko eta kulturartekotasuna ikuspegi feministatik sustatzeko erronka mahai gaineratzen du.

INDARKERIA MATXISTA

- Indarkeria matxista identifikatzeko gaitasuna areagotzea herrian.
- Zerbitzuek modu integralean eta indarkeria matxistaren marko osoa kontuan hartuz jardutea.
- Erreparazioan sakontzea: indarkeria matxista jasan duten emakumeen eta genero disidenteen bizipenaren mina arintzea.
- LGTBIQ+ kolektiboaren erreparaziorako bidea egitea: eragindako indarkeria eta minak erreparatzeko bidea herri bezala pentsatzeko eta egikaritzeko erronka da.

Printzipioak eta bermeak

PLANAREN PRINTZPIO GIDARIAK

Administrazio publikoaren jardunean koherentzia bilatu asmoz, Azpeitiko berdintasun planak EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen eta EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiaren printzipio orokorrak hartu ditu oinarri planaren printzipio gidariak definitzerakoan. Hori horrela, aipatutako testuetatik abiatuta eta Azpeitiko errealitate eta beharretara ekarrita, ondorengoak adostu dira planaren oinarrizko printzipio gisa:

Tratu berdintasuna: Pertsonen sexu-genero diskriminazio oro debekatzea, bai zuzenekoa, bai zeharkakoa, horretarako erabiltzen den modua edozein dela ere. Azpeitiko Udalak diskriminazio anizkoitzari aurre egingo dio, eta emakumeen edo emakume-taldeen oinarrizko eskubideak benetan erabiliko direla bermatuko du, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk tartean daudenean, besteak beste arraza, kolorea, jatorri etniko edo soziala, hizkuntza, erlijioa, kultura, iritzi politikoak edo bestelakoak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza, familiako figurazioa, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, sexu- edo genero-identitatea, genero-adierazpena, landatarra, migratzailea, errefuxiatua, seropositiboa, guraso bakarra izatea, edo beste edozein egoera edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo.

Aukera berdintasuna: Herritar ororen eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, laboralak, sozialak, kulturalak eta ingurumenekoak berdintasun-baldintzetan baliatzen dituztela bermatzea, baita beste oinarrizko eskubide batzuk ere, besteak beste, boterea eta baliabide eta onura ekonomiko eta sozialak kontrolatu eta haietara sarbidea izatekoa.

Indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea: Indarkeria matxista modu eta adierazpen guztietan prebenitu, artatu, konpondu eta desagerrarazteko helburua zeharka txertatzea Azpeitiko Udalaren politiketan eta ekintzetan.

Genero-ikuspegia txertatzea: Genero-ikuspegia politika eta ekintza guztietan txertatzea, sexu-genero desberdinkeriak agerian uzteko eta ezabatzeko aukera ematen duen lanerako eta analisirako metodologia gisa.

Ekintza positiboa: Azpeitiko Udaletik sexu-generoen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lor dadin sustatzea, bizitzako eremu guztietan sexuagatiko egitatezko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko neurri espezifikoak eta aldi baterakoak hartuz.

Generoaren arabeko rolak eta estereotipoak desagerraraztea: Sexu-genero desberdinkerien oinarri diren rol sozialak eta genero-estereotipoak ezabatzea sustatzea. Rol eta estereotipo horien arabera, etxeko eremuaren erantzukizuna emakumeei dagokiela naturalizatzen da, eta eremu publikoaren erantzukizuna, berriz, gizonei esleitzen zaie, balorazio eta aintzatespen ekonomiko eta sozial desberdinarekin.

Ikuspegi interseksionala txertatzea: Kontuan hartzea, zeharka, sexu-genero sistemak nola eragiten duen tratu berdintasunaren printzipio gidarian aipatzen diren gainerako faktoreekin. Erlazio horrek identitate gainjarriak eta interseksionatuak sortzen ditu, baita boterearen eta zapalkuntzaren egoerak eta ardatzak ere.

Sexu- edo genero-identitatearen, sexu-orientazioaren, gorputz-autonomiaren eta autodeterminazioaren garapen askea: Sexu- edo genero-identitatearekin eta sexu-orientazioarekin lotutako diskriminazioak bizitzako eremu guztietan ezabatzea. Gorputz-autonomia eta pertsona guztien autodeterminazioa bermatzeko politika publikoak garatzea, batez ere emakumeena, eta, bereziki, sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatzea.

Ordezkapen orekatua: Erabakiak hartzeko eremu guztietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatua. Ordezkaritza orekatuaren printzipioa aplikatzea udal organo eta eremu guztietan.

Ahalduntze feminista: Ahalduntzea prozesu bat da, eta prozesu horren bidez, emakumeek eta sexu-genero disidenteek euren izateagatik aurre egin behar dieten desberdintasun- eta diskriminazio egoera estrukturalaren kontzientzia indibiduala eta kolektiboa hartzen dute, eta beren bizitzaren gaineko eskumena, boterea eta kontrola eskuratzen dute.

Gizonen inplikazioa: Gizonen kontzientziazioa, erantzukizuna, parte-hartzea eta inplikazioa berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka. Berdinzaleak ez diren maskulinitateak zalantzan jartzea eta erauztea.

Parte-hartzea: Talde feministen eta askotariko emakumeen, gizarte-eragileen eta, oro har, herritarren parte-hartzea eta elkarrikeria bultzatzea, politika publikoen garapenean. Parte hartzeko guneak eta bideak egokitzea eta sortzea eskatzen du, irisgarritasun unibertsala bermatzeko.

Hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea: Hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskararen erabilera sustatzea berdintasunaren esparruan (prestakuntza, parte-hartzea, sentsibilizazioa, langileei eta profesionalei zuzendutako jarduerak, etab.)

PLANA GARATZEKO BERMEAK

Berme gisa ulertuko ditugu planaren garapena ziurtatzeko ezinbestetzat jotzen diren baldintzak edo bermeak:

Benetako konpromiso politikoa. Udal gisa barne mailan berdintasun politikak eta genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko konpromisoa hartu, horretarako beharrezko bitartekoak bideratu eta koordinazio-egiturak onartuz. Baita, gardentasunaren eta herritarrei kontu-ematearen aldeko politikak eginez. Puntu honetan garrantzitsua da aipatzea, Udalak Berdintasunaren parte hartzen duela, eta horrek berekin dakartzan konpromiso politikoak ere hartzen dituela bere gain.

Aurrekontu-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak eskaintzea. Berdintasun plana garatzeko beharrezko aurrekontua bermatzea, bai eta beharrezko baliabide tekniko eta estrukturalak ere.

Erantzukidetasuna, koordinazioa eta elkarlana. Honek bi eremutako lanketa inplikatzeko du: Berdintasuna sustatzeko udal mailan sail guztiek erantzukidetasunez lan egitea eta herri mailan, politiken garapenean, herritarren eta mugimendu feministen parte-hartzea eta solasaldia, bai eta herri eragile sozial eta ekonomikoena. Horietarako, beharrezko egiturak eta elkarlana bultzatuz.

Errealista eta egingarria. Asmo handikoak izateari utzi gabe, lan molde egingarri eta errealistak aurreikustea bilatuko da.

Esku hartze eremu, helburu eta ekintzen laburpena

Plana EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiaren esku-hartze eremuetan oinarrituta dago:

- **Barne dimentsioa:** Berdintasun politika publikoak garatzeko baliabideak eta bermeak ziurtatzea eta bere jardunbidean genero berdintasun printzipioa aintzat hartzen duen eta zeharkako egiten duen udal egitura erdiestea da esku hartzeko ildo honen xedea. Horretarako, berdintasuneko berariazko politikak zein mainstreaming estrategia artikulatzeko konpromiso politiko garbia hartu eta horri erantzuteko oinarrizko egitura eta baliabideak esleitzea ezinbestekoa izango da (ekonomikoak, pertsonalak, trebakuntzari lotuak...). Bide horretan, barne lana ongi koordinatzea, eta beste erakunde eta eragileekiko elkarlan bideak urratzea emankorra izango da. Aipatu guztiak lantzeko helburua duen esku hartze eremu honek **Gobernu ona** izena hartzen du.
- **Kanpo dimentsioa:** aipatutako barne antolaketa horren helburu nagusia da udalak Azpeitiko herriari begira egiten dituen politiketan genero ikuspegiz eta berdintasuna sustatuz lan egitea gizarte berdinzale eta justuagoa lortzeko. Helburu horri bultzada emateko, planak hiru esku hartze eremu landuko ditu:
 - **Ahalduntze feminista:** Ahalduntzea betekizun eta berme bat da munduan genero berdintasunaren aldeko eraldaketa sozialerako. Horregatik, ezinbestekoa da udalak ere ahalduntze hori sustatu eta bermatuko dituen bide orri bat diseinatzea. Horren bidez, alde batetik, Azpeitiko emakumeen ahalduntze indibidual, kolektibo, sozial eta politikorako prozesuak sustatu eta babestea, eta beste aldetik, prozesu horiek iraunkor egiteko urrats sendoak ematea.
 - **Gizarte-antolaketa bidezkoa, berdintasunezkoa eta jasangarria:** Bizitza elkarrekin nola antolatu hausnartzea eta bidea urratzen hastea da beste eredu sozioekonomiko baterantz aldaketa egiteko lehenengo urratsa. Mota honetako helburu eta ekintzak dira esku hartze eremu honek barnebilduko dituenak.
 - **Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak:** Indarkeria matxista oinarrizko giza eskubideen urraketa larri gisa ulertu behar dugu, eta horregatik, indarkeria horren aurrean erakundeek prebentzio eta esku hartzean ardura eta funtzio propioak dituzte. Errealitate honekin lan egitean erakunde zein administrazio guztiek ikuspegi feminista batekin lan egiten behar dute, indarkeria matxistaren konplexutasuna eta askotariko alderdiak kontuan hartuz, eta baita berau jasaten dutenek izan ditzaketen diskriminazio ugariak ikusiaz, ahalduntzea helburu komun gisa hartuta. Bestalde, herritar guztiengan eragitea ere garrantzitsua da, indarkeriaren prebentzioan sakontzeko, berau identifikatzeko gaitasuna areagotzeko eta herriak indarkeriaren gaitzespen posizio argi bat izateaz gain, indarkeriarik gabeko herri izatera bidea egiteko.

2026-2031 aldirako plan estrategiko honek, orotara, 15 helburu eta 69 ekintza landuko ditu genero berdintasuna helburu.

ESKU HARTZE EREMUA	HELBURUAK	EKINTZA KOPURUA
1. GOBERNU ONA	1.1. Egiturazko baldintzetan eragiten jarraitu eta horiek sendotu	4
	1.2. Genero-ikuspegia lan prozeduretan txertatzeko abiatutako bidea egonkortu eta urrats berriak eman	4
	1.3. Udal langile eta ordezkari politikoak berdintasun politikak garatzeko gaitu modu progresibo eta iraunkorrean	5
	1.4. Berdintasun politikak garatzeko lurralde eta erkidego mailako guneetan parte hartze aktiboa izan	2
2. AHALDUNTZE FEMINISTA	2.1. Emakumeen Txokoaren izaera eta jardun komunitarioa indartu	6
	2.2. Emakumeen Txokotik askotariko emakumeen* sareak elikatu	5
	2.3. Dagoeneko martxan eta egonkortuta dauden egitasmo, lanketa eta proiektuekin jarraitu etengabeko ebaluazioa eta hobekuntzak txertatuz	5
3. GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUN EZKOA ETA JASANGARRIA	3.1. Herritarrek ikuspegi feminista kritikoa eskuratzea sustatu eta hori lurreratu eta gorpuzteko gaitasunean sakondu	5
	3.2. Eragileekin sareak eta harremanak sakondu eguneroko lanean ikuspegi feminista eta interseksionala kontuan hartzeko	6
	3.3. Herri zaintzailera bidea egin	3
	3.4. Gizonen desboteretzea sustatzen jarraitu	3
4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	4.1. Indarkeria matxista prebenitzeko, identifikatzeko eta aurre egiteko gaitasuna areagotu herritarren artean	6
	4.2. Indarkeria matxista jasan dutenei arreta integrala eskaini eta beraien arteko sareak indartu	6
	4.3. Indarkeria matxista jasan duten emakumeen eta genero-disidenteen erreparazioan sakondu	3
	4.4. Dagoeneko martxan eta egonkortuta dauden egitasmo, lanketa eta proiektuekin jarraitu etengabeko ebaluazioa eta hobekuntzak txertatuz	6
		69 EKINTZA

Hurrengo orrietan Plan Estrategikoaren ekintzak, urtekako garapena eta horien ardura nork duen jasotzen da.

Neurriak, epeak eta adierazleak

1. GOBERNU ONA	URTEA						Arduraduna(k)	Adierazleak
	2026	2027	2028	2029	2030	2031		
1.1. HELBURUA: Egiturazko baldintzetan eragiten jarraitu eta horiek sendotu								
Ekintzak:								
1.1.1. Emakumeen Txokoko teknikari lanpostuak LPZ-an sartu							Parekidetasun Saila	Emakumeen Txokoko teknikari lanpostuak LPZ-an sartu dira
1.1.2. Berdinasuneko aurrekontua mantendu eta progresiboki beharren arabera emendatzen joan							Parekidetasun Saila	- Aurrekontu orokorrarekiko zer ehuneko bideratzen den kalkulatu eta jarraipen fitxan erregistratu da urtero. - Berdintasunera esleitzen den aurrekontuaren ehunekoa urtero mantendu edo igo da. - Aurrekontuan jeitsiera egon bada, horren arrazoiak aztertu dira eta neurriak hartu behar diren baloratu da.
1.1.3 Berdintasun Planaren inplementaziorako aurreikusitako egitura eta tresnak sortu eta jarraipena egin							Parekidetasun Saila	- Urteko gestio plana egin da eta jarraipena egin da - Parekidetasun Sailaren bilerak egin dira - Parekidetasun Talde teknikoaren bilerak egin dira
1.1.4. Berdintasuneko ordenantza sortzea aztertu, horrek dakartzan lanak eta onurak kontuan hartuz							Parekidetasun Saila	- Azterketa egin da. - Ordenantzaren inguruko erabakia hartu da.
1.2. HELBURUA: Genero-ikuspegia lan prozeduretan txertatzeko abiatutako bidea egonkortu eta urrats berriak eman								
Ekintzak:								
1.2.1. Kontratazioan genero ikuspegia txertatzeko irudikatutako prozesua martxan jarri eta lan egiteko modua egonkortuz joan, etengabeko hobekuntzak aplikatuz							Parekidetasun Teknikaria eta Kontratazio Teknikaria	- Urtero aukeratutako kontratuekin berariazko lanketa egin da - Urtero burutuako prozesua baloratu da eta hobekuntzak txertatu dira
1.2.2. Dirulaguntzetan genero ikuspegia txertatzeko prozesua irudikatu eta abiatu kontratazioko esperientziatik abiatuta							Parekidetasun Saila	Kontratazioan egindako lanketa oinarri hartuta prozesu propioa irudikatu da.

								Prozesua progresiboki martxan jarri da.
1.2.3. Aurrekontuak genero ikuspegitik aztertze lanketa abiatu							Parekidetasun Saila	- Beste udal batzuetako esperientziak ezagutu dira. - Azpeitin aurrekontuak genero ikuspegiarekin lantzeko prozesua irudikatu da.
1.2.4. Udaleko gune eta lanketa sektorialak genero ikuspegiarekin egiten direla progresiboki bermatu, horretarako bide egokiena aukeratuz: parekidetasun sailak zuzenean bertan parte hartzea, kontrasteak egitea, kideek formazioak burutzea etab.							Parekidetasun Saila	- Udaleko gune eta lanketa sektorial nagusien mapa osatu da (mahai egonkorak, plan estrategikoak etab.) - Mapa kontuan hartuta, eragiten hasteko lehentasuneko eremuen aukeraketa egin da - Aukeratutakoetan eragiteko modua adostu, egin eta baloratu da
1.3. HELBURUA: Udal langile eta ordezkari politikoak berdintasun politikak garatzeko gaitu modu progresibo eta iraunkorrean								
Ekintzak:								
1.3.1. Urtero Emakundek, IVAPek, Berdinbideanek, UEUK, UIK-k, Virginia Wolf Basqueskola.... eskainitako ikastaroak aztertu eta dagokion udal langile edo ordezkari politikoari parte hartzeko gonbidapena luzatu.							Parekidetasun Teknikaria	- Urtero formazio eskaintzak aztertu eta langileei eta politikariei proposatu zaizkie. - Erregistroan egindako formazioak eta parte hartzaileak jaso dira. - Plangintzaldi bukaeran udal langile eta ordezkari politiko guztien %75ak mota honetako formazio bat jaso ditu.
1.3.2. Udaletik egingo diren edo martxan dauden lanketa nagusiak identifikatu eta horietan genero ikuspegia txertatzeko berdintasuneko formazio beharren aurreikuspena egin eta formazio planean gehitu: Emakundek, IVAPek, Berdinbideanek, UEUK, UIK-k, Virginia Wolf Basqueskola.... eskainitako ikastaroak edota Azpeitiko udalak berak antolatutakoak izan daitezke.							Parekidetasun Teknikaria	- Plangintzaldi hasieran urte bakoitzean udaletik egingo diren edo martxan dauden lanketa nagusien (HAPOa berriro, plan sektorialak...) identifikazio lana egin da eta horietan egongo diren berdintasuneko garapen beharrak jaso eta horiei erantzuteko formazioak berariaz eskaini zaizkio dagokion langile/politikariari. - Berdintasuneko formazio plan bateratua osatu da. - Urtero plana errebisatu eta beharrezko eguneraketak egin dira. - Erregistroan egindako formazioak eta parte hartzaileak jaso dira.
1.3.3. Legegintzaldi bakoitzaren hasieran berdintasun planaren							Parekidetasun	Legegintzaldi bakoitzaren hasieran

helburu eta erronken inguruko lansaioa egin zinegotzi guztiekin							Saila	↳ lansaioa egin da. ↳ Gutxienez ordezkari politikoen %75ak parte hartu du.
1.3.4. Legegintzaldi bakoitzaren hasieran zinegotzi guztiek berariazko formazioa jaso lidergo feministen inguruan							Parekidetasun Saila	↳ Legegintzaldi bakoitzaren hasieran formazioa egin da. ↳ Gutxienez ordezkari politikoen %75ak parte hartu du.
1.3.5. Emakume zinegotziekin eta gizon zinegotziekin espazio propioak sortu beraien ahalduntze eta desboteretze prozesuak sustatu eta ordezkari publiko gisa eredugarritasunean sakontzeko.							Parekidetasun Saila	↳ Urtero parekidetasun teknikariarekin batera lantzeko gaiak zehaztu dira. ↳ Urtero, gutxienez, bi aldiz berariazko espazioak zabaldu dira aukeratutako gaiak lantzeko.
1.4. HELBURUA: Berdintasun politikak garatzeko lurralde eta erkidego mailako guneetan parte hartze aktiboa izan								
Ekintzak:								
1.4.1. Parekidetasun teknikariak edo/eta Emakumeen Txokoko teknikariek administrazio ezberdinek eskaintzen dituzten langune edo/eta programetan parte hartu							Parekidetasun Saila	↳ Azpeiti eskura dituen programetan parte hartzen ari da: urteko languneen %75ean parte hartu du. ↳ Programan abiatutako lanketak udalera ekartzen dira. ↳ Programaren batean ez parte hartzea erabaki bada, erabakia justifikatu egin da eta aldiro erabakia berrikusi da.
1.4.2. Udaleko langile zein ordezkari politikoek administrazio ezberdinek eskaintzen dituzten langune edo/eta programetan parte hartzea sustatu (adibidez, GFaren generoa prozeduretan programa)							Parekidetasun Saila	↳ Administrazio ezberdinek eskaintzen dituzten sare, langune edo/eta programa interesgarriak identifikatu dira. ↳ Espazio horietan parte hartu edo ez erabaki da.

2. AHALDUNTZE FEMINISTA	URTEA						Arduraduna(k)	Adierazleak
	2026	2027	2028	2029	2030	2031		

2.1. HELBURUA: Emakumeen Txokoaren izaera eta jardun komunitarioa indartu emakumeen* eta genero disidenteen ahalduntze pertsonal eta kolektiborako bitarteko eraginkorrak izateko (aukeran)								
Ekintzak:								
2.2.1. Emakumeen Txokoak emakumeen eta genero disidenteen ahalduntzea sustatzean izan beharreko rolaren inguruan hausnartu eta horri loturiko erabakiak gauzatu							Parekidetasuneko talde teknikoak	- Emakumeen Txokoko teknikariek lehenengo, eta zerbitzu eta profesionalen ondoren, gaur eguneko rolaren eta izan nahi denaren inguruko hausnarketa egin da - Nahi den rola lortzeko bidea irudikatu da eta partekatu da
2.1.2. Emakumeen Txokoaren izaera komunitarioaren autodiagnostikoa egin eta indartu beharreko eremuak identifikatu							Parekidetasuneko talde teknikoak	- Txokoaren izaera komunitarioaren diagnostikoa egin da (GFAko Emakumeen Etxeen Langunean egindako lanketa baliatuta) - Ondorioak partekatu dira, gutxienez, zinegotziekin eta Emakumeen Mahaiarekin.
2.1.3. Diagnostikoan oinarrituta hurrengo urteetarako plangintza diseinatu, martxan jarri eta jarraipena egin							Parekidetasuneko talde teknikoak	Hobetzekoak identifikatu dira eta hurrengo urteetarako lehentasunak adostu dira, gauzatze epeak eta arduradunak zehaztuz.
2.1.4. Emakumeen Txokoaren gobernantza eredua birdefinitu plangintzarekin koherentzia							Parekidetasuneko talde teknikoak	- Txokoaren inguruan dauden figura ezberdinen mapa egin da - Txokoaren gobernantza eredua definitu da parte hartze eta erabakimen maila ezberdinak barnebilduz. - Eredu berria martxan jarri da, beharrezko moldaketak eta egitura berriak sortuz.
2.1.5. Emakumeen Txokoari ikusgarritasun gehiago emateko lanketa diseinatu eta garatu: harremanen, kanpo komunikazioaren, espazioaren seinalizazioaren eta bestelako berariazko ekimenen bidez.							Emakumeen Txokoko talde teknikoak	- Lanketarako berariazko plangintza bat diseinatu da - Gutxienez, aurreikusitako ekintzen %75 burutu dira - Lanketa bukatzean Emakumeen Txokoaren ikusgarritasuna indartzen jarraitzeko neurri batzuk sistematizatu dira
2.1.6. Talde feministekin eta emakumeen taldeekin hartu-eman gertuko eta jarraia izan							Emakumeen Txokoko talde teknikoak	- Herri mailan dauden talde feminista eta emakumeen taldeen argazkia eguneratuta mantendu da - Horietako guztiek Emakumeen Txokoaren eta bere jardunaren berri izan dute

								↳ Horietako bakoitzarekin harreman jarraituko bide egokiena adostu eta egikaritu da
2.2. HELBURUA: Emakumeen Txokotik askotariko emakumeen* sareak elikatu								
Ekintzak:								
2.2.1. Emakumeen Txokoko zerbitzu eta egitasmo ezberdinen arteko zubiak aktiboki eraiki elkarguneak sortuz eta arreta berezia jarritz profil eta errealitate ezberdinetako emakumeen arteko harremanak eraikitzeari.							Emakumeen Txokoko talde teknikoa	↳ Urtero, gutxienez, bi egitasmoren arteko bi baterajotzea gauzatu dira.
2.2.2. Udalera edo Emakumeen Txokora hurbiltzen diren emakumeak zerbitzu eta egitasmo ezberdinetara bideratu, interesen eta beharren arabera. Dagoeneko aktibo dauden emakumeen laguntza baliatu horretarako.							Emakumeen Txokoko talde teknikoa	↳ Udaleko zerbitzu guztiei Emakumeen Txokoko egitasmoen informazioa helarazi zaie urtero. ↳ Emakumeei Txokoko zerbitzu eta egitasmoen berri eman zaie. ↳ Emakumeen Txokoak aktibo dauden emakumeen laguntza baliatu du emakume berrien harrerak eta bideratzeak egiteko.
2.2.3. Baigera Jubilatuen elkartearekin batera emakume nagusien elkarguneak sortu, zahartze aktibo eta feministak sustatzea helburu							Parekidetasuneko talde teknikoa	↳ Emakume nagusiekin batera beraientzako eskaintza garatu da. ↳ Gutxienez, urtean egitasmo bat burutu da.
2.2.4. Emakumeen Txokoko erabiltzaileen arteko elkar ezagutzan eta harremanetan sakontzeko uneak sortu, arreta berezia jarritz profil eta errealitate ezberdinetako emakumeen arteko zubiak eraikitzeari: ate irekiak, aurkezpenak, ikasturte bukaerako festa, erabiltzaileentzako deialdi bereziak...							Emakumeen Txokoko talde teknikoa	↳ Urtero ekintza horiek antolatu dira, Txokoko partaideen parte hartzearekin. ↳ Urtean, gutxienez, mota horretako bi ekintza antolatu dira
2.2.5. Emakumeen Txokoaren 15. Urteurrena baliatuta jardunaldi feministak antolatu edukia eta aisialdia uztartuz							Emakumeen Txokoko talde teknikoa	↳ Jardunaldiak antolatu dira.
2.3. HELBURUA: Dagoeneko martxan eta egonkortuta dauden egitasmo, lanketa eta proiektuekin jarraitu etengabeko ebaluazioa eta hobekuntzak txertatuz								
Ekintzak:								
2.3.1. Jabetze eskolak							Emakumeen Txokoko talde teknikoa	↳ Urtero ikastaroen balorazioa egin da eta identifikatutako hobekuntzak egin dira.
2.3.2. Parte hartze taldeak (empalabramiento, irakurle							Emakumeen	↳ Urtero taldeen balorazioa egin da eta

feminista taldea, Zaintza lanetan ari diren emakumeen taldea)							Txokoko talde teknikoa	identifikatutako hobekuntzak egin dira.
2.3.3. Aholkularitzak (juridikoa, Lardaxka, psikologikoa)							Emakumeen Txokoko talde teknikoa	↪ Urtero zerbitzuen balorazioa egin da eta identifikatutako hobekuntzak egin dira.
2.3.4. Mailegu zerbitzuak (liburu eta erreminta)							Emakumeen Txokoko talde teknikoa	↪ Urtero zerbitzuen balorazioa egin da eta identifikatutako hobekuntzak egin dira.
2.3.5. Emakumeen Txokoko teknikarien eta bertan zerbitzua eskaintzen duten profesional guztien arteko bilera bat egin urtero							Emakumeen Txokoko talde teknikoa	↪ Urtero bilera egin da ↪ Zerbitzua eskaintzen duten profesionalen %80ak parte hartu du.

3. GIZARTE ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA	URTEA						Arduraduna(k)	Adierazleak
	2026	2027	2028	2029	2030	2031		
3.1. HELBURUA: Herritarrek ikuspegi feminista kritikoa eskuratzea sustatu eta hori lurreratu eta gorpuzteko gaitasunean sakondu								

Ekintzak:								
3.1.1. Jarraikortasunez, modu ezberdinetan eta diskurtsoa egokituz herritar guztiei begirako sentsibilizazioa egin, betiere Parekidetasun Sailetik garatzen ari diren lanekin koherentzian							Parekidetasuneko talde teknikoa	- Denboran mantenduko diren kanpainak egiteko gaiak identifikatu dira eta kalera ateratzeko modurik eraginkorrenak zehaztu dira - Kanpainak martxan jarri dira eta ebaluazioak burutu dira
3.1.2. Hezkidetza programarekin jarraitu, etengabeko ebaluazioa eginez eta hobekuntzak txertatuz							Parekidetasun Teknikaria	- Urtero programaren balorazioa egin da eta identifikatutako hobekuntzak egin dira - Programa berritzean berariazko lanketa egin da testuinguru berrietara egokitzeko
3.1.3. Mataza proiektuari jarraipena eman: aurreko fasean identifikatu ziren eta baliatu ez ziren emakumeen istorioen bidez; edo beste sektore batzuetako emakumeak identifikatuz, edo materiala digitalizatuz eta beste erabilera batzuetarako prestatuz							Parekidetasuneko talde teknikoa	- Proiektuan parte hartu zutenekin harremana berrartu da. - Antolatzaileen artean erabaki da zein urrats eman nahi den eta martxan jarri da
3.1.4. Adineko emakumeak erreferentetzat hartzeko ekimenak burutu: jakintza elkarbanatzeko espazioak sortuz, adineko emakumeen hitzaldi ziklo bat eginez...							Parekidetasuneko talde teknikoa	- Arlo ezberdinetako adineko emakume erreferenteak identifikatu dira - Emakume horiek euren historiak kontatzeko ahaldundu dira - Zabalkundea egiteko modurik egokiena bilatu da eta martxan jarri da
3.1.5. Emakumeen Txokotik herritar guztiei begirako parte hartze, sentsibilizazio eta integraziorako ekimenak antolatzen jarraitu etengabeko hobekuntzak txertatuz							Emakumeen Txokoko talde teknikoa	- Urtean, gutxienez, bi ekimen antolatu dira - Ekimenen balorazioa egin da

3.2. HELBURUA: Eragileekin sareak eta harremanak sakondu eguneroko lanean ikuspegi feminista eta interseksionala kontuan hartzeko								
Ekintzak:								
3.2.1. Hezkidetza foroan parte hartzen jarraitu eta ikuspegi feministarekin lan egiten dela bermatu							Parekidetasun Teknikaria	- Parekidetasun sailak foroan parte hartu du - Lanketak edo egitasmoak aktibatu baino lehen ikuspegi feminista bermatzen dutela

								aztertu da
3.2.2. Herriko kirol elkarte ezberdinekin emakumeen kirol praktika sustatzeko lanketa estrategikoak progresiboki garatzeko aukera aztertu							Parekidetasun Saila	- Herriko emakumeen kirol praktika aztertu da adinaren eta kirolaren arabera. Eta gutxien praktikatzen diren kirolak eta adin tarteak identifikatu dira - Kirol eta adin tarte horietan eragiteko aukerak aztertu dira
3.2.3. Sare feminista eta LGBTIQ+ asanbladarekin harremana indartu							Parekidetasuneko talde teknikoa	Emakumeen Txokotik Sare Feministarekin eta LGBTIQ+ asanbladarekin harremanaren helburuak, moduak eta rolak zehaztu dira
3.2.4. Talde feministekin eta emakumeen taldeekin harreman zuzena eta jarraia izan							Parekidetasuneko talde teknikoa	- Harremanaren helburuak, moduak eta rolak zehaztu dira - Urtean, gutxienez, hiru hartu eman formal egin dira
2.3.5. Baigera Jubilatuen Elkartarekin harreman formala egin							Parekidetasuneko talde teknikoa	- Emakumeen Txokotik Baigerarekin elkarrekin harremana definitzeko bilera egin da - Emakumeen Txokoa Baigerako bazkideei gerturatzeko plana egin da
3.2.6. Udal baliabideak talde horien beharrei erantzuteko baliatu							Parekidetasuneko talde teknikoa	Taldeen beharrak jaso dira eta horiei erantzuteko aukerak aztertu dira
3.3. HELBURUA: Herri zaintzailera bidea egin								
Ekintzak:								
3.3.1. Zaintza publiko eta komunitariora bidean sentsibilizazioa sustatzeko ekimenak egin							Parekidetasun Teknikaria	Urteko egun seinalatuak baliatuta (Zaintzaileen eguna, kontziliazioaren eta erantzukidetasunaren eguna...) herritarrei begirako sentsibilizazio ekimenak buru dira
3.3.2. Zaintza lanetan dihardutenen eta zainduen errealitate eta behar espezifikoak jaso eta horiei erantzuteko bideak elkarrekin aztertu							Parekidetasun Teknikaria	Zaintza mahaitik ekintza honi erantzuteko modua diseinatu da
3.3.3. Zaintza mahaian ikuspegi feminista eta intersektionalarekin lan egiten dela bermatu							Parekidetasun Teknikaria	- Parekidetasun sailak mahaian parte hartu du - Lanketak edo egitasmoak aktibatu baino lehen ikuspegi feminista eta intersektionala bermatzen dutela aztertu da
3.4. HELBURUA: Gizonen desbotoetza sustatzen jarraitu								

Ekintzak:								
3.4.1. Emakumeen Txokotik gizonen desboteretzera bideratutako ekintzak indartu							Emakumeen Txokoko talde teknikoa	- Urtero gizonen desboteretzera zuzendutako ikastaro bat, gutxienez, antolatu da - Adinaren eta bizi egoeraren araberako eskaintza egiteko aukera aztertu da - Zabalkunderako baliabideak jarri dira eta Emakumeen Txokoko harremanak baliatu dira
3.4.2. Udaleko zinegotzi gizonekin batera herriko gizonengana iristeko eta eskaintza egokitua egiteko bidea egin							Parekidetasun Saila	- Parekidetasun Sailaren eta zinegotzi gizonen arteko elkarlanerako berariazko espazioa sortu da - Urtero gizonen desboteretzera eskaintza eta zabalkunderako bideak adostu dira, zinegotzi gizonen berariazko espazioan egindako lanketak kontuan hartuz
3.4.3. Herriko gizon ezagunen erreferentzialtasuna baliatuta gizontasunaren inguruko sentsibilizazio ekimenak egiteko aukera aztertu							Parekidetasuneko talde teknikoa	Aukera aztertu da eta erabakia gauzatu da

4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	URTEA						Arduraduna(k)	Adierazleak
	2026	2027	2028	2029	2030	2031		
4.1. HELBURUA: Indarkeria matxista prebenitzeko, identifikatzeko eta aurre egiteko gaitasuna areagotu herritarren artean								
Ekintzak:								

4.1.1. Jaietan indarkeria matxista prebenitzeko, identifikatzeko eta aurre egiteko kanpaina mantendu eta indartu							Parekidetasuneko talde teknikoa	- Urteko jai esanguratsu guztietan kanpaina martxan jarri da - Gutxienez, urtean behin, kanpainaren inguruko balorazio bilera egin da eta hobekuntzak adostu dira
4.1.2. Jaietan indarkeria matxista prebenitzeko, identifikatzeko eta aurre egiteko egiten diren kanpainak urteko beste une eta testuinguru batzuetara zabaltu							Parekidetasuneko talde teknikoa	- Jailetako kanpainak eta erabilitako baliabideak berrikusi eta egun gehiagotan erabiltzeko plana egin da. - Urtero egindako eremu berrietan egindako lanketen balorazioa eta egokitzapenak egin dira.
4.1.3. Gaur egun indarkeria matxistaren identifikazioa ahalbidetzeko eta zerbitzuen berri emateko erabiltzen diren kanalak berrikusi eta bide berriak arakatu informazioa emakume guztiengana iristeko (adinekoak, migratuak, zaintzaileak etab.)							Parekidetasuneko talde teknikoa	Kanpainak irisgarriago izateko kanal berriak ireki dira.
4.1.4. Herriko elkarte ezberdinekin indarkeria matxista identifikatzeko, prebenitzeko eta aurre egiteko lanketa estrategikoak garatu							Parekidetasuneko talde teknikoa	- Elkarte eta kolektiboekin "erronda" egin da indarkeria matxistaren prebentziorako eta artapenerako dituzten baliabideen inguruan galdetzeko - Lortutako argazkiaren arabera proposamena sortu da progresiboki bidelaguntza antolatzeko
4.1.5. Emakumeen elkargune eta espazio naturaletan gakoak izan daitezkeen pertsonekin indarkeriaren prebentzio, detekzio eta oinarritzko arretarako lanketak egin aliatu aktibo izan daitezen (esaterako, ileapaintzaileak...).							Parekidetasuneko talde teknikoa	- Espazioen eta horietako emakume gakoak identifikazioa egin da eta lehentasunezko eremuak identifikatu dira. - Eremu horietako batekin proba pilotu bat burutu da. - Balorazioa eta hobekuntzak gauzatu dira. - Beste eremuekin lanketak progresiboki gauzatzen joan dira.
4.1.6. Ikastetxeetan Iparrizar aurkeztu, irakasle eta ikasleei, kolektibo bakoitzari diskurtsoa egokituz							Parekidetasuneko talde teknikoa	Ikastetxeetan aurkezpenak egin dira
4.2. HELBURUA: Indarkeria matxista jasan dutenei arreta integrala eskaini eta beraien arteko sareak indartu								
Ekintzak:								
4.2.1. Zaintza sarearen funtzionamendua birpentsatu emakume gehiagoren parte hartzea bilatzeko							Emakumeen Txokoko talde	Indarkeria jasan duten emakume gehiagorengana iristeko bideak aztertu dira.

						teknikoa	↪ Taldea publikoa izan daitekeen emakumeen babesa mantenduz aztertu, eta hala bada, zabalkunderako bideak definitu dira.
4.2.2. Indarkeria matxista jasan duten emakumeentzat talde terapiak antolatzea aztertu						Emakumeen Txokoko talde teknikoa	↪ Zerbitzua martxan jartzeko lanak egin dira ↪ Zerbitzua baloratu da eta hobekuntzak txertatu dira
4.2.3. Emakume banatuen taldea sortzeko aukera aztertu eta bideragarria dela ikusiz gero, martxan jarri.						Parekidetasuneko talde teknikoa	↪ Antzeko esperientziak martxan jarri diren herriekin harremana egin da prozesuak ezagutzeko. ↪ Herriko emakume banatuen taldea sortzea baloratu da eta erabakia hartu da.
4.2.4. Herritarrekin harreman zuzena duten udal langileei indarkeria matxista kasuen aurrean jarduteko udalak dituen baliabideak helarazi						Parekidetasun teknikaria	↪ Herritarrekin harreman zuzena duten udal teknikariei informazioa helarazi zaie ↪ Langile berriei informazioa helarazteko modua sistematizatu da ↪ Informazio hori eskuragarri dago langile guztientzat
4.2.5. Udaltzaingoak gaur egun ematen duen zerbitzua 24 ordukoa izateko aukera baloratu						Parekidetasun Saila	↪ Aukera baloratu da
4.2.6. Iparrizar Zerbitzuaren jarraipena egin						Parekidetasun Saila	↪ Jarraipen bilerak egin dira ↪ Etengabeko hobekuntzak txertatu dira
4.3. HELBURUA: Indarkeria matxista jasan duten emakumeen eta genero disidentearen erreparazioan sakondu							
Ekintzak:							
4.3.1. Indarkeria jasan duten emakumeen bizipenak jaso eta herrian beraien hitza entzuteko eta errekonozimendu publikoa emateko bidea egin (Azpeitiko LGTBIQ+ kolektiboaren erreparazioarako egiten ari diren bidearekin koordinatuz).						Parekidetasuneko talde teknikoa	↪ Ahotsak eta esperientziak jaso dira. ↪ Zabalkunderako bide ezberdinak martxan jarri dira: herritarrentzako hitzaldiak, komunikazio euskarriak, ekitaldiak, jardunaldiak...
4.3.2. Geruza guztiei (erasotua, ingurua, gertuko komunitatea, herritarrak...) eta udalean jasotzen diren kasu guztiei (publikoak egiten direnak eta egiten ez direnak) erantzungo dioten erreparazio planak diseinatzeko eta gauzatzeko beharrezko bitartekoak, formazioa, baliabideak eta zerbitzuak irudikatu eta progresiboki horiek barnebiltzen dituen egitura garatzen joan						Parekidetasun Saila	↪ Orain arte egindako lanketak eta esperientziak dokumentatu dira eta horietatik identifikatutako beharrak eta hutsuneak jaso dira. ↪ Behar eta hutsuneetan oinarrituta hurrengo urteetarako plangintza osatu da ↪ Urtero plangintza horri erantzunez erreparazio planak garatzeko egiturazko ekintza bat egin da.
4.3.3. Iparrizar zerbitzuaren baitako profesionalen artean						Parekidetasun	↪ Azterketa egin da eta bideragarri ikusi dena

aztertu gizon erasotzaileekin zer lanketa egin daitekeen eta horretarako zein zerbitzu dauden							Saila	martxan jarri da
4.4. HELBURUA: Dagoeneko martxan eta egonkortuta dauden egitasmo, lanketa eta proiektuekin jarraitu etengabeko ebaluazioa eta hobekuntzak txertatuz								
Ekintzak:								
4.4.1. Parte hartze taldea: Zaintza Sarea							Emakumeen Txokoko talde teknikoa	- Urtero taldearen martxaren balorazioa egin da eta identifikatutako hobekuntzak egin dira. - Plan honen baitako 4.2.2. ekintzan adostutako hobekuntzak egin zaizkio.
4.4.2. Emakumeen Txokoko bidelaguntza zerbitzua							Emakumeen Txokoko talde teknikoa	Urtero zerbitzuaren balorazioa egin da eta identifikatutako hobekuntzak egin dira.
4.4.3. Erantzun publikoaren protokoloa							Parekidetasun Saila	Protokoloak aurreikusitako jarraipen bilerak egin dira.
4.4.4. Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta hobetzeko protokoloa eta Erakundearteko mahaia							Parekidetasun Saila	Protokoloak aurreikusitako jarraipen bilerak egin dira.
4.4.5. Erreparazio planak diseinatu eta gauzatu							Parekidetasuneko talde teknikoa	- Aldiro erreparazio planen balorazioa egin da eta identifikatutako hobekuntzak egin dira. - Plan honen baitako 4.3.2. ekintzaren baitan emandako urratsak erreparazio planetan integratzen joan dira.
4.4.6. Aurrekoak barnebiltzen dituen Iparrizar zerbitzua egonkortzen eta eraberritzen jarraitu							Parekidetasun Saila	Urtero zerbitzuaren balorazioa egin da eta identifikatutako hobekuntzak txertatu dira

Bitartekoak eta baliabideak

Hauek dira helburu eta ekintza bakoitza inplementatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko Azpeitiko Udalak izango dituen bitarteko eta baliabideak.

BITARTEKO MATERIALAK

Urtero erakundeko aurrekontuak zehaztearekin batera berdintasun planerako aurrekontua erabakiko da.

GIZA BALIABIDEAK

Giza baliabideak planaren inplementazioa aurrera erabateko beharrezkoak diren kideen inplikazioari eta dedikazioari deritzogu.

- Parekidetasun saila: arduradun politikoaz (berdintasuneko arduradun politikoa) eta talde teknikoaz (parekidetasun teknikaria eta Emakumeen Txokoko teknikariak) osatuta dago eta planaren inplementazioaren ardura nagusia edukiko duen egitura izango da. Udalak 2023. urtetik dauka Lanpostuen Zerrendan Parekidetasun teknikaria kontratatua jardunaldi osoz A2 mailan. Teknikaria kontratatzearekin batera sortu zen Parekidetasun saila, eta sail autonomoa. Horrez gain, bi lankide ditu une honetan azpikontratauta Emakumeen Txokoa berdintasun teknikari gisa, Gipuzkoako Esku Hartze sozialeko A1 mailan.
Planaren jarraipena egiteko eta zenbait ekintza aurrera eramateko beharrezko dedikazioa edukiko dute.
 - Parekidetasun teknikaria: koordinatzailearen funtzioa beteko du eta horrekin batera beherago azalduko diren eginkizun teknikoen ardura izango du.
 - Parekidetasuneko arduradun politikoa: etengabeko lankidetzat izango du parekidetasun teknikariarekin eta udal gobernuaren etengabe informatua egoteko ardura izango du.
 - Emakumeen Txokoko teknikariak: bereziki Emakumeen Txokoari loturiko lan teknikoak garatuko dituzte. Emakumeen Txokoa, Berdintasun politikak aurrera eramateko espazio garrantzitsua izango da.

Gainerako udal zerbitzuak teknikariak eta ordezkari politikoak: Berdintasun planak udal jardueran osoan eragitea du helburu, eta zentzu horretan, jasotzen dituen hainbat helburu eta ekintzatan gainerako udal teknikari eta ordezkari politikoaren inplikazio zuzena eskatuko du. Inplikazio hori gauzatu ahal izateko beharrezko dedikazioa aurreikusiko zaie.

Jarraipena eta ebaluazioa

PLANAREN JARRAIPENERAKO EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA

Planaren gauzapenerako hainbat geruzatako egitura aurreikusi da. Egitura horrek planarekiko ardura eta ikuspegi maila ezberdinak izango dituen guneak aurreikusten ditu, begirada integrala eta ekarpen politikoa eta teknikoa uztartzea ahalbidetuz. Planaren jarraipen eta inplementaziorako egitura koordinatzaile batek eta hiru lantaldek osatuko dute:

1. Planaren koordinatzailea

- a. Osaera: Parekidetasun teknikaria
- b. Funtzioa: Planaren koordinazio orokorra izango du. Parekidetasun Sailaren eta Partekidetasuneko talde teknikoaren bilerak deitzez arduratuko da. Horrez gain, planaren jarraipenerako euskarriak betetzeaz arduratuko da.

2. Parekidetasun Saila

- Osaera: Parekidetasun zinegotzia, Parekidetasun teknikaria eta Emakumeen Txokoko teknikariak
- Funtzioa: Planaren jarraipenaren ardura nagusia izango du, trakzio lana eginez. Horren baitan, nagusiki, bi helburu beteko ditu: planaren jarraipen orokorra egin (desbideratzeak kudeatuz) eta planak berariaz gune horri esleitzen dizkion lanketak gauzatu.
- Lan dinamika: Gutxienez hilabete behin elkartuko da, urtean, gutxienez, 11 bilera eginez.

3. Parekidetasuneko talde teknikoa

- Osaera: Parekidetasun teknikaria eta Emakumeen Txokoko teknikariak
- Funtzioa: Planak aurreikusten dituen lan teknikoen jarraipen gertuagokoaren ardura izango du. Horren baitan, nagusiki, bi helburu beteko ditu: planaren lan teknikoen jarraipen orokorra egin (erabaki politikorik eskatzen ez duten desbideratzeak kudeatuz) eta planak berariaz gune horri esleitzen dizkion lanketak gauzatu.
- Lan dinamika: Gutxienez bi astean behin elkartuko da, urtean, gutxienez, 22 bilera eginez.

4. Emakumeen Txokoko talde teknikoa

- Osaera: Emakumeen Txokoko teknikariak
- Funtzioa: Planak Emakumeen Txokoari lotuta aurreikusten dituen lan teknikoen jarraipen gertuagokoaren ardura izango du: Emakumeen Txokoko lan teknikoak gauzatu eta horien jarraipen orokorra egin (erabaki politikorik eskatzen ez duten desbideratzeak kudeatuz).

- Lan dinamika: Harreman jarraia izango dute, beharrezkoa denean berariazko bilerak eginaz.

Planaren gauzapenean aipaturiko funtzio eta lantaldeez gain beste espazio batzuek ere parte hartze zuzena izatea aurreikusten da. Horien parte hartzea gauzatuko diren ekintzen eta beharren arabera izango da, aurrez aipaturiko guneetan erabakiko delarik noiz eta nola bide eman beste parte hartze horiei. Gutxienez, planaren gauzapenean parte hartuko dute:

- Gobernu taldea
- Iparrizar Zerbitzuko lantaldea
- Udaleko gainerako Sail eta teknikariak

ADIERAZLEAK

Adierazleak egoera edo errealitate baten inguruko informazioa ematen duten neurgailuak dira. Egindako esku hartzearen betetze maila eta eraginkortasuna neurtzeko tresnak dira, eta, beraz, ezinbestekoak ebaluaziorako. Komenigarria da, halaber, horiek jasotzean, garapenaren berri emateko moduan jasotzea.

Planaren jarraipena adierazleekin egingo da. Komenigarria izango da adierazle horiek Azpeitiko Udalaren ohiko kudeaketa moduetan txertatzea. Adierazle batzuk prozesuaren edo ekintzen betetzen mailaren inguruko informazioa emango digute eta beste batzuek, ordea, egindako lanaren inpaktua adieraziko dute. Planeko ekintza guztiek adierazle bat edo batzuk dituzte aurreikusita, beraz, planaren garapenean adierazle taula bat osatu eta betetzea garrantzitsua izango da. Plan honetan definitu diren adierazleen betetze maila, adierazleak berak besterik jaso ezean, bai/ez aldagaien bidez neurtuko da.

Adierazleen jarraipen zehatza Parekidetasuneko talde teknikoak burutuko du eta horien betetze maila Parekidetasun Sailak aztertu eta baloratuko du.

EBALUAZIOA

Parekidetasun Sailak planaren urte bakoitzeko eta planaren indarraldiaren bukaerako ebaluazioa egingo du eta hurrengo urterako helburu eta ekintzak proposatuko ditu.

Ebaluazioa egiteko gutxienez honako tresna hauek erabiliko dira:

- Urteko berdintasun plana. Helburu eta ekintza bakoitzaren adierazleak aztertuko dira eta ekintza horiekin lortutako inpaktua

Helburu eta ekintzak proposatzeko dokumentuan urte horretarako aurreikusitako helburu eta ekintzak eta aurreko urtearen ebaluazioan identifikatutako ekintza zuzentzaile eta hobetzekoak hartuko dira kontutan.

Berrikuspina egiten den garaian baloratuko da planean esanguratsuak diren aldaketak egin behar diren. Berrikuste hori Parekidetasun Sailak egingo du.